

EK-ko hamabi estatuek atzo sinatu zuten Europako Batasun Hitzarmena

1993ko urtarrilaren lehendabiziko egunetik hitzartutako gai batzuk jarriko dira martxan


Europako Komunitateko hamabi estatuetako ordezkariak atzo sinatu zuten Holandako Maastricht hirian, duela bi hilabete hiri berean hamabi estatu edo gobernuburuek hitzartutako Batasun Politiko Ekonomiko eta Finantzarioko Hitzarmena. Atzo sinatutakoa hobesteko urtebeteko epea dute bai Europako Legebiltzarrak eta baita estatu bakoitzeko legebiltzarrek ere.

MAASTRICHT

Maastrichteko Provinciebus edo Etxe Probintziala izan zen, abenduaren 9 eta 10ean EK-ko hamabi estatu edo gobernuburuek hautatutako leku bera hain zuzen, Atzerri eta Ekonomia ministroek Europako Batasunerako hitzarmen sinatu zuten egotza. Anibal Cavaco Silva-k, Portugalgo lehen ministro eta EK-ko behin-behineko lehendakariak zuzendu zituen sinaketaren ekitaldiak eta berarekin batera han egon ziren Ruud Lubbers lehen ministro holandarra, eta Jacques Delors eta Egon Klepsch Europako Komisio eta Legebiltzarreko lehendakaria.

Europako Komunitatearen barneko estatuen harremanak estuagotuko dituen Batasun Europarreko Hitzarmena dagoeneko Europako lehendabiziko Konstituzio bezala jo izan dute zenbait mediotan.

ECU MONETA OFIZIALA Horretarako orde, atzo sinaturikoa Legebiltzar europarrak eta EK-ko estatukide bakoitzeko legebiltzarrek onartu beharko dute atzo beren gobernuetako ordezkariak sinaturikoa.



Abenduan EK-ko hamabi estatu edo gobernuburuek sinaturikoa izenpetu zuten Atzerri eta Ekonomia ministroek.

1996an EK-ko hamabi estatu edo gobernuburuek bizitza europarra zuzenduko duen hitzarmen hori berrikusi egin beharko dute. Bitartean, 1993ko urtarrilaren lehendabiziko

egunean jarriko da martxan hitzarmen hau, ordutik aurrera ecu-a izango da moneta ofiziala Europar, eta Bundesbank banka nazional alemaniarra arduratuko da moneta ho-

nen gorabeheraz. Kanpo politika amankomuna eta moneta bakarra 1996rako aurrakusten duen hitzarmen honen onarpenak, zenbait aldaketa suposatuko ditu estatuen barnean. Alde batetik, horrelako erabakiak hartzeko beren konstituzioetan agertzen den bezala, Danimarkak eta Irlandak erreferendumerara eraman beharko dute Batasun Europarraren Hitzarmena. Lehendabiziko estatuak dagoeneko jarri du erreferendum eguna, ekainaren 2an egingo dena. Beste estatu batzuetan, Frantzia eta Espainia barne, beren konstituzioetako testuen aldaketak egin beharko dituzte edo bestela maila handiko legeak egin. Tratatuak bait dio estatukide bateko hiritar bat berea ez den estatu komunitario batean hautagai bezala aurkeztu daitekeela hauteskundeetan.

Hamar hizkuntzatan

Atzo Maastricht-en bildu ziren Europako Komunitateko Atzerri eta Ekonomia ministroek, Europako Legebiltzarreko eta Europako Komisioko lehendakariak eta Holanda, Portugal eta Luxemburgoko estatu edo gobernuburuek, Batasun Politiko Ekonomiko eta Finantzarioaren hamar bertsio sinatu zituzten. Hamar bertsioak hizkuntza desberdinetan idatzirik zeuden.

Horietatik bederatzi, EK-ko beste hainbeste hizkuntza ofiziletan idatzita zeuden, frantsesez, alemanieraz, espainieraz, holanderaz, portugesez, danimakeraz, ingelesez, italieraz eta grekeraz. Hauek gain beste bertsio bat zegoen, gaelikoz idatzia, irlandarrentzat bereziki egina, Komunitate europarrean ofiziala ez izan arren Irlandan ofiziala bait da ingelesarekin batera.

Ordea, Europako Komunitateko estatuetan badira beste hizkuntza batzuk, besteak beste, euskara bera, foru europarretan ofizialtasunik lortu ez eta aipamen berezirik jasotzen ez dutenak. Kasu batzuetan, catalaniera adibidez, zenbait hizkuntz ofizialek baino hitzun gehiago ditu ez ofizialak.

Ostiralero egin ohi duen moduan Aljeriako Armada kalera irten da

ALJER

Aljeriako hiriburuan ostiralero gertatzen den moduan, Gerdarmia eta paratxutistek bidegurutze eta erakunde ofizialen egoitzak kontrolpean jarri dituzte. Armadako soldaduek blindatu soviatarrekin kaleak hartu eta gerrarako uniformeak jantzirik, prest daude edozein gatazkan parte hartzeko. Aljerreko integristek, Batna hirian gertatutakoa ikusi eta gero, mesfidantzaz begiratzen diote Armadari.

Iturri ofizialen arabera, hamabi lagun hil ziren Batnan, manifestariak poliziak antolatutako bigilantzia sarea gainditu eta Armada tiro egiten hasi zenean. Hiri honetan, otoiak bukatu ondoren istilu latzak izan dira eta integris-

tek telebista katearen egoitzan sartzea lortu dute.

Aljerreko unibertsitateko mezkitan -Aljeriako mugimendu integristaren sorlekua- Mohamed Said FIS alderdi integristako liderrek sermoia eskaintzeko asmoa zuen. Armadak unibertsitateko mezkitan eta Bah El Uedekoan paratxutistak jarri ditu. Dena den, Bah El Ued-en istilurik ez da izan azken egunetan.

Soldaduak Gobernuak, Lehendakaria eta Ministerituen egoitza guztiak gertutik zaintzen ari dira. Gendarmariak zenbait pasabide edo filtro berezi ezarri ditu. Manifestariak pasabide hauek gainditzea lortuko balute, Armadaren blindatuek osatutako bigarren hesiarekin topo egingo lukete.

Armada Federalak suetena hautsi eta soldadu kroaziar bat hil zuen

ZAGREB

Serbia eta Kroaziak Nazio Batuek proposatutako bake plana onartu badute ere, alde bien arteko gatazkak ez dira amaitu eta urtarrilaren 3an ezarritako suetena behin baino gehiagotan hautsi da. Soldadu federaletan herenegun Osijek eta Nova Gradiska hirietan eraso egin zuten. Eraso hauen ondorioz, Kroaziako soldadu bat hil eta beste bat zauritu zuten.

Kroaziarrek, sueten akordioan agindutakoari jaramonik egin gabe, erasoari erantzun zioten. Sueten akordioan garbi esaten da alde batek besteren eraso jasanez gero parte eman behar dela eta armak isilik mantendu.

Lord Carrington Europako Komunitateko bitartekaria, bere alde, Franjo Tudjmen lehendakari kroaziarrekin bildu zen. Zagrebeko Gobernuak nazio Batuen plana

baldintzarik jarri gabe onartu du. Dena den, kroaziarrek garbi utzi dute Nazio Batuetako kasku urdinak ez direla Krajina-ko serbiarrek kontrolatutako eskualdea mugak finkatzeko erabili behar.

Mazedoniako agintariak, bestalde, gero eta tirabira gehiago dituzte serbiarrek. Armada Federala Mazedoniatik bere indar eta armamentu guztia eramaten ari da. Mazedoniarren ustez, Armadak egiten duena lapurketa hutsa da. Desagertutako Jugoslaviako Defentsa sistema ezarri zenean, Armadaren indarraz gain Defentsa Unitateak egituratu zituzten.

Unitate hauek zibilez osatuak zeuden, nahiz eta buruzagitza militarren esku egon. Mazedonian dauden Defentsa Unitateak Gobernu mazedoniarrek bereak direla esan du eta ez dago armamentu hau serbiarrei uzteko prest.

LABURREAN

EEBBetan hamasei lagun hil dira hegazkin istripuan

Estatu Batuetako Evansville hirian —Indiana estatuan— hamasei lagun hil ziren Hercules C-130 hegazkin bat erori eta Jojo izeneko jatorria erabat suntsitu zenean. Hegazkinak eztanda egin eta jatorria ezezik ondoan zegoen hotelak ere su hartu zuen. Istripuaren ondorioz, hegazkinean zihoazen bost lagun, jatorriko bi bezero eta hotelean zeuden bederatzi pertsona hil ziren. Evansvilleko aireportuan, 1977. urtean 29 lagun hil ziren beste istripu batean.

TURKIAK soldadu gehiago bidali ditu Kurdistanera

Iraneko iturri ofizialek salatu dutenez, Ankarako Gobernuak Kurdistanera soldadu gehiago bidaltzeko hartu duen erabakia Washingtonetik dator. Iraniarrek ez dute uste indar horiek Kurdistaneko nazionalistak zapaltzeko direnik. Indar militarra erakutsiz, Iranek Estatu Independenteen Komunitateko zenbait errepublika islamiarretan izan dezakeen eragina ahuldu nahi dela uste du Teheranek.

NATOKO hegazkinak Austriatik pasatzeko baimena dute

NATOKo miaketarako hegazkinak —AWACS— Austriatik pasatzeko baimena izango dute, Alois Mock Atzerri ministro austriarrak adierazi zuenez. Erabaki horrek, Austriari II Mundu Gerra ostean ezarritako Estatu neutralaren statusa bertan behera geratu da. Adituen ustez, SESBeren desagertzea halako erabakia justifikatu egiten du.

POLISARIO Frontea berriro armak hartzeko gertu

Salem Uld Kaid Salah Polisario Fronteko harreman sindikalen arduradunak adierazi zuenez, Nazio Batuen bake planak jarraipenik ez badu eta erreferenduma ez bada egiten, Polisario Fronteak borroka armatuarekin segituko du. «Gauza bat edo bestea egiteko gertu gaude», esan zuen Salem Uld Kaid Salah-ek. Era berean sindikalista sahararrak adierazi zuenez, bake prozesuak porrot egiten badu, errua Nazio Batuen ere izango litzateke.